

# **DONOSTIAKO UDALA** **AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

**INGURUMENeko GOI MAILAKO TEKNIKARI PLAZA BAT (1) OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ BEHIN  
BETIKO BETETZEKO DEIALDIA**

**PROVISIÓN DEFINITIVA POR CONCURSO-OPOSICIÓN DE UNA PLAZA (1) DE TÉCNICO/A SUPERIOR DE  
MEDIO AMBIENTE**

**Oposizio aldiko ariketa bakarra  
Ejercicio único de la fase de oposición**

**Udaltzaingoaren Polizia-Etxeko 1. solairua, Europa aretoa/Sala Europa (1ª planta) de la Comisaría  
de la Guardia Municipal**

**2025eko martxoaren 28a / 28 de marzo de 2025**

## **GALDERAK / PREGUNTAS:**

**1 Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen arabera, Natura 2000 Sareko guneen kasuan, zein da eragin nabarmenari ondoen egokitzen zaion definizioa?**

A) Ingurumenaren kalitatearen edozein alderdiren aldaketa kaltegarria.

B) Lekuan kontserbatu behar diren habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera definitzen duten parametroak okerragotu edo, hala badagokio, lehengoratzeko aukerak oztopatu ditzakeen eragina.

C) Aurreko bietatik bat ere ez.

**1 Según la Ley 27/2013 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local y la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, en el caso de los Espacios de la Red Natura 2000 ¿cuál es la definición que mejor se adapta al de efecto significativo?**

A) Alteración desfavorable de cualquiera de los aspectos de la calidad del medio ambiente.

B) Efecto que puede empeorar los parámetros que definen el estado de conservación de los hábitats o especies objeto de conservación en el lugar, o, en su caso, dificultar su restablecimiento.

C) Ninguna de las anteriores.

**2 Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen arabera, erantzun hauetatik zein da zuzena?**

A) 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek hiri-mugikortasun jasangarrirako planak ezarriko dituzte 2023a baino lehen, non mugikortasunaren ondoriozko isuriak murriztea ahalbidetuko duten neurriak jasoko baitira; horietako bat, gutxienez, 2023a baino lehen isuri gutxiko eremuak ezartzea izango da.

B) 50.000 biztanletik gorako udalerriek isuri gutxiko eremuak ezarriko dituzte 2023ko abendua baino lehen, eta, aldi berean, hiri-mugikortasun jasangarriko planak egingo dituzte.

C) 50.000 biztanletik gorako udalerriek 2023ko abendua baino lehen klima- eta energia-planak ezarriko dituzte, eta horien barruan sartutako ekintzetako bat isuri gutxiko eremuak ezartzea izango da.

**3 Donostiako DSS 2050 Ekintza Planean, isuriak gutxitzeko helburu hauek jasotzen dira:**

A) Berotegi-efektuko gasen isuri baliokideak % 40 murriztea 2030erako eta % 80 2050erako, 1990eko isuriekin alderatuta.

B) Berotegi-efektuko gasen isuri baliokideak % 45 murriztea 2030erako eta klima-neutraltasuna lortzea 2050erako, 2005eko isuriekin alderatuta.

C) Berotegi-efektuko gasen isuri baliokideak % 40 murriztea 2030erako eta % 80 2050erako, 2007ko isuriekin alderatuta.

**2 Según la Ley 7/2021, de 20 de mayo, de cambio climático y transición energética, ¿cuál de estas respuestas es la correcta?**

A) Los municipios de más de 50.0000 habitantes adoptarán antes del 2023 planes de movilidad urbana sostenible que introduzcan medidas de mitigación que permitan reducir las emisiones derivadas de la movilidad, incluyendo al menos el establecimiento de zonas de bajas emisiones antes del 2023.

B) Los municipios de más de 50.0000 habitantes establecerán antes de diciembre de 2023 zonas de bajas emisiones y paralelamente elaborarán Planes de Movilidad Urbana Sostenible.

C) Los municipios de más de 50.000 habitantes establecerán antes del diciembre de 2023 planes de clima y energía que incluyan entre sus acciones el establecimiento de zonas de bajas emisiones.

**3 Los objetivos de reducción de emisiones que se recogen en el Plan Klima DSS 2050 de Donostia-San Sebastián son:**

A) Reducción de emisiones equivalentes de gases de efecto invernadero de 40% para el 2030 y 80% para 2050 respecto a las emisiones de 1990.

B) Reducción de emisiones equivalentes de gases de efecto invernadero de 45% para el 2030 y neutralidad climática para 2050 respecto a las emisiones de 2005.

C) Reducción de emisiones equivalentes de gases de efecto invernadero de 40% para el 2030 y 80% para 2050 respecto a las emisiones de 2007.

**4 Azken 15 urteetan elektrizitate-kontsumo konstantea izan duen instalazio bateko elektrizitate-kontsumoak eragindako berotegi-efektuko gasen zeharkako isuriek honako bilakaera hau izan dute:**

- A) Gutxitu egin dira.
- B) Handitu egin dira.
- C) Konstante mantendu dira.

**5 Isuri gutxiko eremuak arautzen dituen abenduaren 27ko 1052/2022 Errege Dekretuaren arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

- A) Bi urtean behin, IGEd ezartzen duen araudia onesten denetik aurrera, toki-erakundeek helburuen betetze-mailari buruzko txosten bat argitaratuko dute beren webgune instituzionalean eta egokitzen dituzten hedabideetan.
- B) Lau urtean behin, IGEd ezartzen duen araudia onesten denetik aurrera, toki-erakundeek helburuen betetze-mailari buruzko txosten bat argitaratuko dute beren webgune instituzionalean eta egokitzen dituzten hedabideetan.
- C) Urtero, IGEd ezartzen duen araudia onesten denetik aurrera, toki-erakundeek helburuen betetze-mailari buruzko txosten bat argitaratuko dute beren webgune instituzionalean eta egokitzen dituzten hedabideetan.

**4 Las emisiones indirectas de gases de efecto invernadero por consumo de electricidad de una instalación cuyo consumo de electricidad se haya mantenido constante en éstos últimos 15 años habrán tenido la siguiente evolución:**

- A) Habrán disminuido.
- B) Habrán aumentado.
- C) Se habrán mantenido constantes.

**5 Según el Real Decreto 1052/2022, de 27 de diciembre, por el que se regulan las zonas de bajas emisiones ¿cuál de estas afirmaciones es correcta?**

- A) Cada dos años desde la aprobación de la normativa que establezca la ZBE, las entidades locales publicarán en su página web institucional y en los medios que consideren oportunos, un informe en el que se valore el cumplimiento de los objetivos.
- B) Cada cuatro años desde la aprobación de la normativa que establezca la ZBE, las entidades locales publicarán en su página web institucional y en los medios que consideren oportunos, un informe en el que se valore el cumplimiento de los objetivos.
- C) Cada año desde la aprobación de la normativa que establezca la ZBE, las entidades locales publicarán en su página web institucional y en los medios que consideren oportunos, un informe en el que se valore el cumplimiento de los objetivos.

**6 Isuri gutxiko eremuak arautzen dituen abenduaren 27ko 1052/2022 Errege Dekretuaren arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

A) IGEaren barruan, sentsibiltate bereziko eremuak eskola-ekipamenduetatik, haur-parkeetatik eta ospitaleetatik gertu ezarriko dira, lehentasunez.

B) IGEaren ezarpenak helburu nagusi hauek betetzen lagundu beharko du:

- Airearen kalitatea hobetzea.
- Klima-aldaketa arintzea.
- Kalitate akustikoaren helburuak betetzea.

C) IGEaren proiektuak lagundu egingo du, arrazoizko epe batean, Osasunaren Mundu Erakundearen airearen kalitateari buruzko gidalerroen gida-balioak lortzen.

**7 Erantzun hauetatik zein zuzena?**

A) IGEa ezarri ondoren, alkatearen dekretu bidez zabalduko da beste zona edo eremu batzuetara.

B) IGEaren ordenantzaren barruan, inpaktu sozialari, genero-inpaktuari eta IGEaren esparruko tokiko ekonomiarentzako ondorioei buruzko analisi bat jasoko da.

C) IGEaren zehapen-prozedura Trafikoari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean oinarrituko da.

**6 Según el Real Decreto 1052/2022, de 27 de diciembre, por el que se regulan las zonas de bajas emisiones ¿cuál de estas afirmaciones es correcta?**

A) Las zonas de especial sensibilidad, dentro de una ZBE, se establecerán prioritariamente en proximidades de equipamientos escolares, parques infantiles y centros hospitalarios.

B) La implantación de la ZBE deberá contribuir al cumplimiento de los siguientes objetivos principales:

- Mejorar la calidad del aire.
- Mitigar el cambio climático.
- Cumplir los objetivos de calidad acústica.

C) El proyecto de ZBE contribuirá a alcanzar, en un plazo razonable, los valores guía de las directrices sobre calidad del aire de la OMS.

**7 ¿Cuál de estas respuestas es correcta?**

A) Una vez establecida la ZBE, la ampliación a nuevas zonas o ámbitos se realizará por decreto de alcaldía.

B) La Ordenanza de ZBE deberá incluir un análisis de impacto social, de género y de las implicaciones para la economía local en el área de ZBE.

C) El procedimiento sancionador de la ZBE se sustentará en la Ley de Tráfico y Seguridad Vial.

**8** Itsas mailaren igoerari dagokionez, hondartzen morfologian atzerapen handiena hemen izatea aurreikusten da:

A) Kontxako hondartza: 20 metro ere egingo du atzera, agertokirik okerreanean, 2100. urterako.

B) Kontxako eta Ondarretako hondartzak: berdintsu egingo dute atzera kostalde-lerroan.

C) Zurriolako hondartza: batez ere, erdialdean egingo du atzera.

**9** Klima-aldaketara egokitzeko planari dagokionez, ekintza hauetatik zein EZ dago sartuta indarrean den planean?

A) Hiriko mapa termikoa edo hiriko klimaren mapa egitea, puntu kritikoak ezagutzeko.

B) Uholde-arriskua duten eremuetan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen xehetasun-azterlanak egin daitezen sustatzea.

C) Biodibertsitaterako interesgarriak diren eremuetan sute-arriskuaren aurrean dagoen protokoloa berrikustea.

**8** En lo que se refiere al incremento del nivel de mar, en la morfología de las playas se prevé que el mayor retroceso se de en:

A) La playa de la Concha con un retroceso de hasta 20 m para el peor escenario para el 2100.

B) En las playas de la Concha y Ondarreta, que tendrán un retroceso de la línea de costa semejante.

C) En la playa de la Zurriola, sobre todo en la zona central.

**9** En relación al Plan de Adaptación al cambio climático ¿cuál de éstas acciones NO está incluida en el Plan vigente?

A) Elaborar un mapa térmico y/o de clima urbano de la ciudad para conocer puntos críticos.

B) Potenciar estudios de detalle en suelos potencialmente contaminados en zonas expuestas a inundación.

C) Revisar el protocolo existente ante el riesgo de incendios en zonas de interés para la biodiversidad.

**10** Naturan oinarritutako irtenbideak erabiliz ibaiak leheneratzeari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

A) Ugalketa begetatiborako gaitasuna duten zurezko espezieen zati ez sustraituak erabil daitezke.

B) Landare belarkarek zurezkoek baino babes handiagoa ematen dute lur-irristatzeen kontra, baina zurezkoek beste onura batzuk dakartzate; horregatik, konbinatuta erabiltzen dira.

C) Horrelako egoeretan erabiltzen diren zurezko espezieen zati sustraitu gabeak, ahal dela, geldialdi begetatibotik kanpo prestatu behar dira.

**11** Donostiako Udalaren klima aldaketaren aurkako barne planari (KABP) dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

A) Planaren irismenean ez dira sartzen Tranbia Konpainia (Dbus) eta Kiroletako Patronatua, tratamendu berezia behar duten erakundeak direlako.

B) Dauden zaborrontzien erabilera eta erabilgarritasunaren jarraipen sistematikoa egiteko eta behar berriak detektatzeko protokoloa diseinatzea.

C) KABPak lau eremu hauek ditu ardatz: mugikortasun-ohiturak aldatzea, energia-eskaria murriztea, hondakinen kudeaketa hobetzea eta uraren kudeaketa hobetzea.

**10** En el ámbito de la restauración fluvial, al emplear Soluciones Basadas en la Naturaleza, ¿cuál de las siguientes afirmaciones es correcta?

A) Se pueden usar fragmentos no enraizados de especies leñosas con capacidad de multiplicación vegetativa.

B) La vegetación herbácea proporciona una mayor protección que la leñosa contra los deslizamientos de tierra, aunque la leñosa aporta otros beneficios, por lo que se usan combinadas.

C) Los fragmentos no enraizados de especies leñosas utilizadas en estos contextos se deben preparar preferentemente fuera del reposo vegetativo.

**11** ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta en relación al Plan Interno de Cambio Climático (PICC) del Ayuntamiento de San Sebastián?

A) En el alcance del Plan no se incluye a la Compañía del Tranvía (Dbus) ni al Patronato de Deportes por tratarse de organismos que requieren un tratamiento particular.

B) Se incluye una acción que consiste en diseñar un protocolo para el seguimiento del uso y disposición de papeleras existentes y la detección de nuevas necesidades.

C) El PICC se centra en los siguientes 4 ámbitos: modificación de hábitos de movilidad, reducir la demanda de energía, mejorar la gestión de residuos y mejorar la gestión del agua.

**12 2030erako Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunaren konpromisoaren hiru zutabeak honako hauek dira:**

- A) Berotegi-efektuko gasen isuriak % 50 murriztea, naturan oinarritutako irtenbideak indartzea eta energia-pobrezia arintzea.
- B) Berotegi-efektuko gasen isuriak % 55 murriztea 2030erako, erresilientzia indartzea eta energia-pobrezia arintzea.
- C) Berotegi-efektuko gasen isuriak % 50 murriztea, trantsizio energetikoa sustatzea eta erresilientzia indartzea.

**13 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

- A) Espainiako Hiri Agendak garapen jasangarriko 17 helburu ditu.
- B) Agenda 2030a Europar Batasuneko Kontseiluak pertsonen eta ingurumenaren alde onartutako jasangarritasun-plana da.
- C) Espainiako Hiri Agendan bigarren mailako helburu hau dago sartuta: "Trinkotasuna, hiri-oreka eta oinarritzko zerbitzuen hornidura sustatuko dituen hiri-eredu bat zehaztea".

**12 Los tres pilares del compromiso del Pacto de Alcaldías por el Clima y la Energía 2030 son:**

- A) Reducción de emisiones de GEI en un 50%, refuerzo de soluciones basadas en la naturaleza y alivio de la pobreza energética.
- B) Reducción de emisiones de GEI en un 55% para el 2030, refuerzo de la resiliencia y alivio de la pobreza energética.
- C) Reducción de emisiones de GEI en un 50%, fomento de la transición energética y refuerzo de la resiliencia.

**13 ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta?**

- A) La Agenda Urbana Española cuenta con 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible.
- B) La Agenda 2030 es el plan de sostenibilidad adoptado por el Consejo de la Unión Europea a favor de las personas y el medio ambiente.
- C) El siguiente objetivo secundario está incluido en la Agenda Urbana Española: "Definir un modelo urbano que fomente la compacidad, el equilibrio urbano y la dotación de servicios básicos".

#### **14 Baieztapen hauetatik, zein EZ DA ZUZENA?**

A) Agenda 2030eko 3.9 helburuari dagokionez (hemendik 2030era, nabarmen jaistea produktu kimiko arriskutsuen eta airearen, uraren eta lurraren poluzioaren eta kutsaduraren ondorioz eragindako heriotza eta gaixotasunak), jasangarritasun-adierazleetako bat nahi gabeko intoxikazioei egotzitako heriotza-tasa da.

B) Agenda 2030aren ekintza-planen ezarpen-mailaren jarraipena, batez ere, jasangarritasun-adierazleen bidez egiten da.

C) E-mugi online aplikazio informatiko bat da, Udalsarea 2030 sareak udalen eta sareko eskualdeko erakundeen eskura jartzen duena, garapen jasangarriekin eta politika publikoen ebaluazioarekin konprometitutako toki-erakundeen tokiko jasangarritasun-planen kudeaketa eta jarraipena errazteko eta gizarteari jakinarazteko.

#### **15 Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra dauka bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, zuzkidura hau lortzeko:**

A) Administrazio horren kontsumoaren % 23, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla.

B) Administrazio horren kontsumo elektrikoaren % 23.

C) Administrazio horren kontsumoaren % 32, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla.

#### **14 ¿Cuál de estas afirmaciones es INCORRECTA?**

A) En relación a la Meta 3.9. de la Agenda 2030 (de aquí a 2030, reducir considerablemente el número de muertes y enfermedades causadas por productos químicos peligrosos y por la polución y contaminación del aire, agua y suelo) uno de los indicadores de sostenibilidad es la Tasa de mortalidad atribuida a intoxicaciones involuntarias.

B) El seguimiento del grado de implementación de los Planes de Acción de Agenda 2030 se realiza, principalmente, a través de los Indicadores de Sostenibilidad.

C) E-mugi es una aplicación informática on line, que la red Udalsarea 2030 pone a disposición de los ayuntamientos para facilitar la gestión y seguimiento de los planes de sostenibilidad local de las entidades locales comprometidas con el desarrollo sostenible y la evaluación de políticas públicas y su comunicación a la sociedad.

#### **15 Según la ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca, los edificios de las administraciones públicas vascas deberán lograr para el año 2030 que, en el conjunto de sus edificios, dispongan de instalaciones de aprovechamiento de energías renovables suficientes para abastecer:**

A) El 23% del consumo de la citada administración, incluyendo tanto sistemas de aprovechamiento térmico como de generación eléctrica.

B) El 23% del consumo eléctrico de la citada administración.

C) El 32% del consumo de la citada administración, incluyendo tanto sistemas de aprovechamiento térmico como de generación eléctrica.

**16 Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretua aldatzen duen urtarrilaren 24ko 34/2023 Errege Dekretuaren arabera, PM2,5 partikulari dagokionez, hauek dira 24 orduko batezbestekoetarako edo 24 orduko batezbesteko mugikorrerako atalaseak:**

A) Aktibazio-atalasea:  $25\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; informazio-atalasea:  $35\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; alerta-atalasea:  $50\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

B) Aktibazio-atalasea:  $35\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; informazio-atalasea:  $45\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; alerta-atalasea:  $60\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

C) Aktibazio-atalasea:  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; informazio-atalasea:  $50\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; alerta-atalasea:  $80\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

**17 34/2023 Errege Dekretuaren arabera, hauek dira PM10 partikuletarako ingurumen-baldintzen muga-balioak:**

A) 24 orduko batez besteko muga-balioa,  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; muga hori ezingo da gainditu urtean 24 alditan baino gehiagotan, eta urteko batez besteko muga-balioa ere ezingo da izan  $30\mu\text{g}/\text{m}^3$ -tik gorakoa.

B) 24 orduko batez besteko muga-balioa,  $50\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; muga hori ezingo da gainditu urtean 35 alditan baino gehiagotan, eta urteko batez besteko muga-balioa ere ezingo da izan  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$ -tik gorakoa.

C) 24 orduko batez besteko muga-balioa,  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$ ; muga hori ezingo da gainditu urtean 35 alditan baino gehiagotan, eta urteko batez besteko muga-balioa ere ezingo da izan  $30\mu\text{g}/\text{m}^3$ -tik gorakoa.

**16 Según el Real Decreto 34/2023, de 24 de enero, por el que se modifican el Real Decreto 102/2011, de 28 de enero, relativo a la mejora de la calidad del aire, en lo que respecta a PM2,5 los umbrales para promedios de 24 horas o promedio móvil de 24 horas son:**

A) Umbral activación:  $25\mu\text{g}/\text{m}^3$ , umbral información:  $35\mu\text{g}/\text{m}^3$ , umbral de alerta:  $50\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

B) Umbral activación:  $35\mu\text{g}/\text{m}^3$ , umbral información:  $45\mu\text{g}/\text{m}^3$ , umbral de alerta:  $60\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

C) Umbral activación:  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$ , umbral información:  $50\mu\text{g}/\text{m}^3$ , umbral de alerta:  $80\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

**17 Los valores límite en condiciones ambientales para PM10, según el Real Decreto 34/2023 son:**

A) Valor límite de promedio de 24 horas  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$  que no podrán superarse en más de 24 ocasiones por año y valor límite de promedio anual  $30\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

B) Valor límite de promedio de 24 horas  $50\mu\text{g}/\text{m}^3$  que no podrán superarse en más de 35 ocasiones por año y valor límite de promedio anual  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

C) Valor límite de promedio de 24 horas  $40\mu\text{g}/\text{m}^3$  que no podrán superarse en más de 35 ocasiones por año y valor límite de promedio anual de  $30\mu\text{g}/\text{m}^3$ .

**18 Osasunaren Mundu Erakundeak jarraibide hauek ezartzen ditu kutsatzaile hauentzat:**

- A) PM10erako urteko batez bestekoa  $15 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , NO<sub>2</sub>rako  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$  eta PM<sub>2,5</sub>erako  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ .
- B) PM10erako urteko batez bestekoa  $20 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , NO<sub>2</sub>rako  $20 \mu\text{g}/\text{m}^3$  eta PM<sub>2,5</sub>erako  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$ .
- C) PM10erako urteko batez bestekoa  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , NO<sub>2</sub>rako  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$  eta PM<sub>2,5</sub>erako  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ .

**19 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

- A) Ozono troposferikoa lehen mailako kutsatzaile edo aitzindariak (hainbat giza jardueratan isuritako KOHak eta SO<sub>2</sub>ak) atmosferako oxigeno eta argi ultramorearen presentzian dituzten erreakzio kimiko multzoen ondorioz sortzen da.
- B) Saharako intrusioen ondoriozko partikulen gehikuntza gaixotzetasa handitzearekin lotu da.
- C) Ozono troposferikoaren maila altuenak urtariletik martxora bitartean erregistratzen dira, garai horretan inbertsio termikoko egoera meteorologiko gehiago gertatzen baitira.

**18 Las directrices de la Organización Mundial de la Salud para los siguientes contaminantes son:**

- A) Promedio anual de PM<sub>10</sub>  $15 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , NO<sub>2</sub>  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$  y PM<sub>2,5</sub>  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ .
- B) Promedio anual de PM<sub>10</sub>  $20 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , NO<sub>2</sub>  $20 \mu\text{g}/\text{m}^3$  y PM<sub>2,5</sub>  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$ .
- C) Promedio anual de PM<sub>10</sub>  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , NO<sub>2</sub>  $10 \mu\text{g}/\text{m}^3$  y PM<sub>2,5</sub>  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ .

**19 ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta?**

- A) El ozono troposférico se produce como resultado de una serie de reacciones químicas de los contaminantes primarios o precursores (principalmente, COVs y SO<sub>2</sub> emitidos en numerosas actividades humanas) en presencia de oxígeno atmosférico y luz ultravioleta.
- B) El incremento de partículas como resultado de episodios de intrusiones saharianas se ha asociado con incremento de morbilidad.
- C) Los niveles más altos de ozono troposférico se registran entre enero y marzo, debido a que se producen más situaciones meteorológicas de inversión térmica.

**20 Eusko Jaurlaritzak, airearen kalitatearen sarearen barruan, estazio hauek ditu Donostiako udalerrian:**

- A) Airearen kalitatea kontrolatzeko sei estazio; horietatik, seietan neurtzen da PM10, lautan SO2 eta hirutan BTX.
- B) Airearen kalitatea kontrolatzeko sei estazio; horietatik lautan neurtzen da PM10, seietan SO2 eta bitan BTX.
- C) Airearen kalitatea kontrolatzeko sei estazio; guztietan neurtzen dira PM10 eta NO2, eta bitan BTX.

**21 Airearen kalitatearen sareak Donostian dituen estazioetatik, hauetan neurtzen da ozonoa:**

- A) Ategorrieta, Puio eta Zubieta.
- B) Tolosa hiribidea, Puio eta Zubieta.
- C) Ategorrieta, Puio eta Añorga.

**22 Zenbatean behin egin/berrikusi behar dira akustikaren arloko ekintza-planak?**

- A) 3 urtean behin.
- B) 4 urtean behin.
- C) 5 urtean behin.

**20 La red de calidad del aire de Gobierno Vasco cuenta en el término municipal de Donostia-San Sebastián con:**

- A) 6 estaciones de Control de Calidad del aire de las cuales en las 6 se mide PM10, en 4 SO2 y en 3 BTX.
- B) 6 estaciones de Control de Calidad del aire de las cuales en 4 se mide PM10, en 6 SO2 y en 2 BTX.
- C) 6 estaciones de Control de Calidad del aire de las cuales en todas se mide PM10 y NO2 y en 2 BTX.

**21 El ozono se mide en las siguientes estaciones que la Red de Calidad del Aire tiene en el municipio de Donostia-San Sebastián:**

- A) Ategorrieta, Puio y Zubieta.
- B) Av. Tolosa, Puio y Zubieta.
- C) Ategorrieta, Puio y Añorga.

**22 ¿Con qué asiduidad han de elaborarse/revisarse los Planes de Acción en materia acústica?**

- A) Cada 3 años.
- B) Cada 4 años.
- C) Cada 5 años.

**23** Toki-eskumeneko hondakinak kudeatzeko kostuei dagokienez, toki-entitateek, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea indarrean jarri eta hiru urteko epean, tasa bat edo, hala badagokio, ondare-prestazio publiko ez-tributario bat ezarri behar dute, ezaugarri hauek izango dituen:

A) Kontuan hartu behar ditu hondakinen bilketa, garraio eta tratamenduaren zuzeneko kostuak, baina ez zeharkako kostuak.

B) Kontuan hartu behar ditu hondakinen bilketa, garraio eta tratamenduaren zuzeneko eta zeharkako kostuak, baina ez materialen salmentatik lortutako diru-sarrerak.

C) Aukera eman behar du sortutako hondakinen arabera ordaintzeko sistemak ezartzeko.

**24** Adierazi erantzun hauetatik zein EZ DEN ZUZENA Donostiako udalerriari dagokionez:

A) Etxeko hondakin arriskutsuak bi garbiguneetan eta auzoetatik pasatzen den bilketa-kamioian utz daitezke.

B) Parte Zaharreko jarduera ekonomikoetako biohondakinak bereizita jasotzen dira, atez ate.

C) Partikularrek bigarren eskuko objektuak sal ditzakete Donostiatruk asteroko azokan.

**23** En relación a los costes de gestión de los residuos de competencia local, las entidades locales deben establecer, en el plazo de tres años desde la entrada en vigor de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, una tasa o, en su caso, una prestación patrimonial de carácter público no tributaria, con estas características:

A) Debe tener en cuenta los costes directos de la recogida, transporte y tratamiento de los residuos, pero no tiene que considerar los costes indirectos.

B) Debe tener en cuenta los costes directos e indirectos de la recogida, transporte y tratamiento de los residuos, pero no los ingresos que se puedan conseguir por la venta de materiales.

C) Debe permitir implantar sistemas de pago por generación.

**24** Señale la respuesta INCORRECTA, en el municipio de Donostia-San Sebastián:

A) Los residuos domésticos peligrosos pueden depositarse en los dos garbigunes y en un camión de recogida que recorre los barrios.

B) Los biorresiduos de las actividades económicas de la Parte Vieja se recogen de forma separada puerta a puerta.

C) Los particulares pueden vender objetos de segunda mano en el mercado semanal Donostiatruk.

**25 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

- A) LIFE proiektu jakin baterako finantzaketak ezin du gainditu proiektuan diruz lagundu daitezkeen gastuen % 50.
- B) LIFE finantzaketaren zeharkako gastuek, oro har, ez dute gainditu behar aurrekontuaren % 5a.
- C) LIFE finantzaketan, onuradun gisa eskatutako 500.000 euroko laguntzetatik aurrera, auditoretza bat egin beharko da.

**26 Adierazi enuntziatu hauetako zein EZ dagoen sartuta DNSH printzipioaren 6 ingurumen-helburuen barruan:**

- A) Klima-aldaketa arintzea
- B) Ingurumen-osasuna babestea.
- C) Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.

**25 ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta?**

- A) La financiación para un determinado proyecto LIFE no puede superar el 50% de los gastos subvencionables del proyecto.
- B) Los gastos indirectos de la financiación LIFE no deben superar, como norma general, el 5% del presupuesto.
- C) En la financiación LIFE, a partir de los 500.000 euros de ayuda solicitada a nivel de beneficiario será necesaria una auditoría.

**26 Indica cuál de los siguientes enunciados NO está incluido dentro de los 6 objetivos medioambientales del principio DNSH:**

- A) Mitigación al cambio climático.
- B) Protección de la salud ambiental.
- C) Prevención y Control de la contaminación a la atmósfera, al agua o al suelo.

**27** Ingurumenaren arloko dirulaguntzei dagokienez, lehentasuna izango dute ingurumenaren arloko helburu nagusiekin bat datozen proiektuek, zehazki:

- A) Hondakinak, biodibertsitatea, klima-aldaketa eta osasunaren sustapena.
- B) Hondakinak, biodibertsitatea, klima-aldaketa eta kutsadura akustikoa.
- C) Hondakinak, biodibertsitatea, klima-aldaketa eta kutsadura atmosferikoa eta akustikoa.

**28** Ingurumen Sailaren dirulaguntzetako balorazio-irizpideei dagokienez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- A) Gehienez 25 puntu, baliabide propioak jartzeagatik
- B) Gehienez 30 puntu, proiektuaren kalitate teknikoagatik.
- C) Gehienez 20 puntu, proposatutako ekintzen emaitzen eraginkortasunagatik.

**27** En lo que a subvenciones del Área de Medio ambiente se refiere serán prioritarios los proyectos que estén alineados con los objetivos principales del Área de Medio Ambiente, en concreto:

- A) Residuos, biodiversidad, cambio climático y promoción de la salud.
- B) Residuos, biodiversidad, cambio climático y contaminación acústica.
- C) Residuos, biodiversidad, cambio climático y contaminación atmosférica y acústica.

**28** En relación a los criterios de valoración de las subvenciones del Departamento de Medio Ambiente, ¿cuál de estas afirmaciones es correcta?

- A) Máximo de 25 puntos por aportación de recursos propios.
- B) Máximo de 30 puntos por calidad técnica del proyecto.
- C) Máximo de 20 puntos por eficacia de los resultados de las acciones propuestas.

**29 Erosketa eta kontratazio publiko berdean ekoetiketak erabiltzeari dagokionez, baieztapen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?**

A) Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (SPKL) ekoetiketak erabiltzea aurreikusten du, ingurumen-ezaugarriak betetzen direla frogatzeko.

B) Ekoetiketak borondatezkoak izaten dira beti.

C) I motako ekoetiketen adibide dira Aingeru Urdina eta Beltxarga Nordikoa.

**30 Natura 2000 Sarean, Donostiako udal-mugartearen barruan, eremu babestu (KBE) hauek daude:**

A) Oberan-Errekabeltz eta Uliako itsaslabarrak.

B) Ulia eta Igeldo.

C) Ulia eta Mendizorrotzeko errekek.

**31 Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen 209/2019 Dekretuaren arabera, lurzoruaren kalitatearen deklarazioan honela deklaratu da lurzorua:**

A) Eraldatua, aldatu gabea edo kutsatua.

B) Eraldatua, aldatu gabea edo kutsatu gabea.

C) Egokia, kutsatua edo ez-egokia.

**29 ¿Qué afirmación es INCORRECTA respecto al uso de ecoetiquetas en la compra y contratación pública verde?**

A) La Ley de Contratos del Sector Público (LCSP) prevé el uso de ecoetiquetas como medio de prueba del cumplimiento de características medioambientales.

B) Las ecoetiquetas suelen ser siempre de carácter voluntario.

C) Algunos ejemplos de ecoetiquetas de tipo I son el Angel Azul o el Cisne Nórdico.

**30 En la red Natura 2000, dentro del término municipal de Donostia-San Sebastián, encontramos dentro de espacios protegidos (ZEC) los siguientes ámbitos:**

A) Oberán-Errekabeltz y acantilados de Ulia.

B) Ulia e Igeldo.

C) Ulia y Arroyos de Mendizorrotz.

**31 Según el Decreto 209/2019 por el que se desarrolla la ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, la declaración de la calidad del suelo declarará éste como:**

A) Alterado, no alterado, o contaminado.

B) Alterado, no alterado, o no contaminado.

C) Apto, contaminado o no apto.

### **32 Zein da EMASen eta ISO 14001: 2015ren arteko erlazioa?**

- A) Biak dira erakunde baten ingurumen-alderdiei buruzkoak, baina ez dute irizpide komunik.
- B) Biak dira erakunde baten ingurumen-alderdiei buruzkoak, eta, EMAS betetzeko, partzialki bete behar da EN ISO 14001:2015 araua.
- C) Biak dira erakunde baten ingurumen-alderdiei buruzkoak, eta, EMAS erregistroa lortzeko, ezinbestekoa da aurretik ISO 14001:2015 ziurtagiria lortzea.

### **33 Baieztapen hauetatik, zein EZ DA ZUZENA?**

- A) Planak, programak eta proiektuak ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren mende jarri beharko dira, horiek sustatzen dituen administrazio publikoak hasierako onespina edo baimena eman aurretik.
- B) Ingurumen-organoak emandako ingurumen-txosten estrategikoak indarraldia galduko du, baldin eta hura argitaratu eta lau urteko epean plan edo programa ezartzen edo onartzen ez bada. Ingurumen-organoak ez du esanbidezko ebazpenik eman beharko ingurumen-txosten estrategikoaren indarraldia galdu dela adierazteko.
- C) Erabat deusezak izango dira planak, programak eta haien aldaketak eta berrikuspenak ezartzeko, baimentzeko, erantzukizunpeko adierazpena egiteko edo aurretiazko komunikazioa egiteko egintzak, baldin eta, plan, programa edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egonik, egintza horiei aplikatzekoa zaien ingurumen-ebaluazioko prozedura amaitu gabe eman badira.

### **32 La relación entre EMAS e ISO 14001:2015 es:**

- A) Ambas se refieren a aspectos medioambientales de una organización, pero no tienen criterios en común.
- B) Ambas se refieren a aspectos medioambientales de una organización, y el cumplimiento del EMAS implica el cumplimiento parcial de la norma EN ISO 14001:2015.
- C) Ambas se refieren a aspectos medioambientales de una organización, y es requisito indispensable para obtener el registro EMAS haber obtenido anteriormente el certificado ISO 14001:2015.

### **33 ¿Cuál de estas afirmaciones INCORRECTA?**

- A) Los planes, programas y proyectos deberán someterse al correspondiente procedimiento de evaluación ambiental de forma previa a su aprobación o autorización inicial por parte de la Administración pública que los promueve.
- B) El informe ambiental estratégico emitido por el órgano ambiental perderá su vigencia si tras su publicación no se procede a la adopción o aprobación del plan o programa en el plazo de cuatro años. No será preciso que exista resolución expresa del órgano ambiental declarando la pérdida de vigencia del informe ambiental estratégico.
- C) Serán nulos de pleno derecho los actos de adopción, autorización, declaración responsable o comunicación previa de los planes, programas, y sus modificaciones y revisiones, cuando, estando sometidos dichos planes, programas o proyectos a evaluación ambiental, dichos actos se hayan emitido sin haberse terminado el procedimiento de evaluación ambiental que les sea de aplicación.

**34** Legionellosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-baldintzak ezartzen dituen ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretuari dagokionez, Legionella spp. bakterioaren zer kantitate zenbatu behar da, gutxienez, hozte-dorreetan eta lurruntze-kondentsadoreetan, instalazioak nahitaez garbitu eta desinfektatu behar izateko?

- A) 10 ufc/l.
- B) 10.000 ufc/l.
- C) 1.000 ufc/l.

**35** 487/2022 Errege Dekretuaren arabera, zein da ur bero sanitarioko sistemen itzulera-zirkuituetan mantendu behar den gutxieneko tenperatura, legionella ugaltzeko arriskua minimizatzeko?

- A) 70°C.
- B) 60°C.
- C) 50°C.

**34** En relación al Real Decreto 487/2022 , de 21 de junio, por el que se establecen los requisitos sanitarios para la prevención y control de legionelosis, ¿Cuál es el recuento de Legionella spp., en torres de refrigeración y condensadores evaporativos, por encima del cual es obligatorio realizar una limpieza y desinfección de las instalaciones?

- A) 10 ufc/l.
- B) 10.000 ufc/l.
- C) 1.000 ufc/l.

**35** ¿Cuál es la temperatura mínima que debe mantenerse en los circuitos de retorno de sistemas de agua caliente sanitaria, según el Real Decreto 487/2022, para minimizar el riesgo de proliferación de Legionella?

- A) 70°C.
- B) 60°C.
- C) 50°C.

**36 Igerilekuetako uraren tratamendu kimikoari dagokionez, enuntziatu hauetatik zein da zuzena?**

- A) Inoiz ezin da egin ontzian zuzenean, inola ere.
- B) Egin daiteke, behar bezala justifikatuta, ontzia itxita eta bainularirik ez dagoela.
- C) Egin daiteke, behar bezala justifikatuta, betiere ontzi guztian ez bada gainditzen 10 m<sup>2</sup>-ko ur-geruzako bainulari bateko kopurua.

**37 Donostiako hondartzetan, laginketa hauek egiten dira bainu-garaian (udan):**

- A) 2 puntu hondartza bakoitzean, astero.
- B) 3 puntu hondartza bakoitzean, astero.
- C) 2 puntu Ondarretan, 3 puntu Kontxan eta 3 puntu Zurriolan, astero.

**36 En relación al tratamiento químico del agua de las piscinas, ¿cuál de estos enunciados es correcto?**

- A) Nunca podrá realizarse directamente en el vaso, bajo ninguna circunstancia.
- B) Podrá hacerse, justificadamente, con cierre del vaso y en ausencia de bañistas.
- C) Podrá hacerse, justificadamente, siempre que no se sobrepase una afluencia de bañistas de 1 bañista/ 10m<sup>2</sup> de lámina de agua en todo el vaso.

**37 En las playas donostiaras los muestreos en temporada de baños (verano) son:**

- A) 2 puntos en cada playa con frecuencia semanal.
- B) 3 puntos en cada playa con frecuencia semanal.
- C) 2 puntos en Ondarreta, 3 puntos en La Concha y 3 puntos en Zurriola con frecuencia semanal.

**38 Kontsumorako uraren kalitatearen, haren kontrolaren eta horniduraren irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituen urtarilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretuaren arabera, egoera hauetako zein EZ dago jasota, intzidentzia gisa, kontsumoko urei dagokienez?**

A) I. eranskineko parametroen balio parametrikokoak edo behaketa-zerrendako parametroen erreferentzia-balioak gainditzea.

B) Emaita analitikoen beharrik gabe ere ura osasungarria eta garbia ez dela susmatzen den salbuespenezko egoerak, hala nola hondamendi naturalak edo istripu handiak, hornidura-eremuko azpiegituretan gabeziak eragiten dituztenak.

C) Ur-hornidurarik ez izatea sei ordu baino gehiagoan.

**39 Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez, baieztapen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?**

A) Agintaritza publikoak eskatu dioten informazioa ez duenean, informazio hori daukanari igorriko dio eskaera, eta eskatzaileari horren berri emango dio.

B) Ingurumenari buruzko informazio-eskaerei erantzutea doakoa izango da beti.

C) Ingurumenari buruzko informazio-eskaera bat modu zehaztugabea egiten denean, agintaritza publikoak hori zehazteko eskatuko dio eskatzaileari.

**38 Según el Real Decreto 3/2023, de 10 de enero, por el que se establecen los criterios técnico-sanitarios de la calidad de agua de consumo, su control y suministro, ¿Cuál de estas situaciones NO está incluida como incidencia en relación a aguas de consumo?**

A) La superación de los valores paramétricos de los parámetros del anexo I o de los valores de referencia de los parámetros de la Lista de observación.

B) Las situaciones excepcionales en las que, sin necesidad de resultados analíticos, se pueda sospechar que el agua no es salubre y limpia, como desastres naturales o accidentes de gran magnitud que provoquen deficiencias en las infraestructuras de la zona de abastecimiento.

C) La falta de suministro de agua por un tiempo superior a seis horas.

**39 En relación al derecho de acceso a la información medioambiental ¿Cuál de estas afirmaciones es INCORRECTA?**

A) Cuando la autoridad pública no posea la información requerida remitirá la solicitud a la que la posea y dará cuenta de ello al solicitante.

B) La respuesta a solicitudes de información ambiental será siempre gratuita.

C) Cuando una solicitud de información ambiental esté formulada de manera imprecisa, la autoridad pública pedirá al solicitante que la concrete.

**40** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikulua arabera, arau bat egitean, euskal administrazio publikoek ebaluatu egin behar dute zer inpaktu izan dezakeen proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran. Horretarako, aztertu behar da ea arauan proiektatu den jarduketak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

**Noren bidez ebaluatu behar du eragin hori administrazio publikoak?**

- A) Berdintasun-organoaren bidez.
- B) Araua sustatzen duen administrazio-organoaren bidez.
- C) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

**40** Conforme al artículo 20 del Decreto Legislativo 1/2023, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en la elaboración de una norma, las administraciones públicas vascas han de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en la de los hombres. Para ello se ha de analizar si la actividad proyectada en la norma puede tener repercusiones positivas o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad.

**¿A través de quién deberá evaluar ese impacto la administración pública?**

- A) A través del órgano de igualdad.
- B) A través del órgano administrativo que promueva la norma.
- C) Las 2 respuestas anteriores son correctas.

## **ERRESERBAKO GALDERAK / PREGUNTAS DE RESERVA:**

**41** 2016ko urtarrilean egindako *Artikutza KBEko abifaunaren dibertsitateari eta baso-habitatarekin duen loturari buruzko azterlanaren arabera, non dago hegazti-espezieen ugaritasun eta aberastasunik handiena?*

A) Pagadia; baso-habitat nagusia denez, aberastasun handia sortzen du KBEko hegazti-faunan.

B) Hostozabalen basoberritzeak eta hariztia.

C) Pagadia eta hariztia; balio txikiena, berriz, konifero-sailek dute.

**42** Garraioaren arloko jasangarritasun ekonomikoko neurriei buruzko abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuaren arabera, ikasteko beka eta laguntzei dagokienez, bai eta aurrezpen eta efizientzia energetikorako eta gas naturalaren mendeotasun energetikoa murrizteko neurriei dagokienez ere, hoztutako barrutietako airearen tenperatura ez da izango honako hau baino txikiagoa:

A) 25o C.

B) 27o C.

C) 23o C.

**41** Según el “Estudio de la diversidad de avifauna en el ZEC Artikutza y su relación con el hábitat forestal” realizado en Enero 2016, la mayor abundancia y riqueza de especies de aves se encuentra en:

A) El hayedo, que al ser el hábitat forestal predominante, genera la gran riqueza en avifauna de la ZEC.

B) Las repoblaciones de frondosas y el robledal.

C) El hayedo y el robledal, siendo las plantaciones de coníferas las de menor valor.

**42** Según el Real Decreto-Ley 14/2022, de 1 de agosto, de medidas de sostenibilidad económica en el ámbito del transporte, en materia de becas y ayudas al estudio, así como de medidas de ahorro, eficiencia energética y de reducción de la dependencia energética del gas natural, la temperatura del aire en los recintos refrigerados no será inferior a:

A) 25o C.

B) 27o C.

C) 23o C.

**43 Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko legeari eta Euskadiko ingurumen-administrazioari buruzko legeari dagokienez, galdera hauetatik zein EZ DA ZUZENA?**

A) Hondakin arriskutsuak tratatzeko baimena behar duten jarduerak eta instalazioak ingurumen-baimen bakarraren mende egongo dira.

B) Zementua ehotze bidez fabrikatzeko instalazioek, egunean 500 tona baino gehiago ekoizteko ahalmena badute, ingurumen-baimen integratua beharko dute.

C) 50.000 biztanle baliokide baino gehiagorentzako edukiera duten hondakin-uren araztegiek ingurumen-baimen integratua behar dute.

**44 Berotegi-efektuko gasen inbentarioen esparruan, adierazi esaldi OKERRA:**

A) Tona bat metano 298 tona karbono dioxido baliokideren baliokidea da.

B) Karbono dioxido baliokidea unitate bat da, metano eta oxido nitroso isuriak batzeko aukera ematen duena.

C) Karbono dioxido baliokidea unitate bat da, berotegi-efektuko gas baten erradiazio-indarra karbono dioxidoarenarekin alderatzen duena.

**43 En relación a la ley de racionalización y sostenibilidad de la Administración local y la ley de administración ambiental de Euskadi ¿Cuál de estas preguntas es INCORRECTA?**

A) Las actividades e instalaciones sujetas a autorización de tratamiento de residuos peligrosos estarán sometidos a autorización ambiental única.

B) Las instalaciones de fabricación de cemento por molienda con una capacidad de producción superior a 500 toneladas diarias estarán sujetas a autorización ambiental integrada.

C) Las estaciones depuradoras de aguas residuales con una capacidad superior a 50.000 habitantes-equivalentes están sometidos a autorización ambiental integrada.

**44 En el marco de los inventarios de gases de efecto invernadero, señale la frase INCORRECTA:**

A) Una tonelada de metano equivale a 298 toneladas de dióxido de carbono equivalente.

B) El dióxido de carbono equivalente es una unidad que permite sumar las emisiones de metano con las de óxido nitroso.

C) El dióxido de carbono equivalente es una unidad que compara la fuerza de radiación de un gas de efecto invernadero con la del dióxido de carbono.

**45 Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera, toki-erakundeei dagokie:**

A) Nahitaezko zerbitzu gisa, etxe eta merkataritzako hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea, etxe hondakin arriskutsuak barne direla.

B) Nahitaezko zerbitzu gisa, etxe hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea, zerbitzuetako eta industrietako etxe hondakinak barne direla.

C) Nahitaezko zerbitzu gisa, etxe eta merkataritzako hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea, eraikuntzako eta etxe konponketarako obra txikietatik datozen obra-hondakinak izan ezik.

**46 Zer adibide aipatzen ditu DNSH gidak biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari kalte txikia eragiten dieten baina beste ingurumen-helburu batzuetan eragin negatiboa izan dezaketen jardura gisa?**

A) Eraikinetako irisgarritasuna hobetzea.

B) Biomasa bidezko elektrizitatea sortzea.

C) Bero-ponpak instalatzea.

**45 De acuerdo con la Ley 7/2022, de 8 de abril de 2022, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, corresponde a las entidades locales:**

A) Como servicio obligatorio, la recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos y comerciales, incluidos los residuos domésticos peligrosos.

B) Como servicio obligatorio, la recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos, incluidos los residuos domésticos de servicios e industrias.

C) Como servicio obligatorio, la recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos y comerciales, excluidos los escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria.

**46 ¿Qué ejemplos menciona la Guía DNSH como actividades que causan un perjuicio insignificante a la protección y restauración de la biodiversidad y los ecosistemas, pero que pueden impactar negativamente otros objetivos medioambientales?**

A) Mejora de la accesibilidad en edificios.

B) Generación de electricidad con biomasa.

C) Instalación de bombas de calor.